



## **Landa-eremua eta klimari buruz proposamenak emateko, Gipuzkoako HERRITARREN BATZARREKO PARTE IZAN nahi duzu?**

*Donostia, 2022 ko irailaren 19an*

Herritar horri:

**Gutun hau jaso duzu zure helbidea zozketa bidez hautatua izan delako eta honela**, klima-larrialdiaren aurka ekarpena eginez Gipuzkoako nekazaritza-sektorea hobetzeko, **Herritarren Batzar batean parte hartzeko aukera ematen zaizu**. Zurekin bizi den edozein pertsona edo zu zeu aurkeztu zaitezke boluntario moduan prozesuan parte hartzeko. Baldintza bakarra 16 urtetik gorakoa izatea da eta zozketan aukeratua izan den etxebizitza bakoitzetik gehienez pertsona batek izena ematea da.

Gipuzkoan, munduko beste hainbat lekutan bezala, landa-eremuko lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren kudeaketaz ari gara nagusiki hemen) bizi eta lan egiten duten pertsonen zailtasun handiak dituzte orokorrean ingurune horretan bizirauteko. Bestalde, landa-eremua bereziki ahula da klima-aldaketaren aurrean eta nekazaritza-sektoreak aukera handiak ditu eta zeregin garrantzitsua izan dezake klima-larrialdiari zein bere eraginei aurre egiten eta egokitzen.

Bi erronka hauek lotuta daude, eta potentzial handia dute batera ekiteko, hainbat eragileren arteko lankidetzaren bidez (administrazio publikoak, gizarte zibil antolatua, herritarrak).

Horregatik, honako galdera honi erantzun beharko dion Herritarren Batzar bat jarri dugu abian: **Nola bermatu dezakegu Gipuzkoako nekazal-jarduera klima-larrialdiari aurre egiteko?**

Gutuna jaso eta boluntario gisa Batzarrean parte hartzeko izena ematen duzuen pertsona guztien artean bigarren zozketa bat egingo da, ondorengo irizpide hauek kontuan hartuta: sexua, adina, hezkuntza maila, hizkuntza, kokapen geografikoa eta gaiarekiko jarrera. Zozketa honen helburua Herritarren Batzarrean parte hartzen duten 32 pertsonak Gipuzkoako biztanleriaren isla izatea da. Zozketa honetan hautatua gertatzen bazara, lau lan-saioetan parte hartzeko konpromisoa hartu beharko duzu. Saio horietan, askotariko ikuspegiak dituzten adituek informazioa emango

dizute eta, elkarrizketaren eta deliberazioaren bidez, proposatutako galderari erantzun eta gomendio adostuak eman beharko dizkiozue Gipuzkoako Foru Aldundiari Batzarrean parte hartuko duzuen herritarrek.

Parte hartzeko, ez da beharrezkoa nekazaritza-sektorearen edo klima-aldaketaren alde aurretiko ezagutza izatea, bileretan zehar erabakiak hartzeko beharrezkoa den informazioa eta laguntza teknikoa emango zaizu eta. Prozesu osoan zehar, Batzarreko kide bakoitzaren pribatutasuna gordeko da.

Badakigu zure denbora balio handikoa dela eta, beraz, parte hartzen duzuen pertsonen ordain ekonomiko bat jasoko duzue eta saioetako joan-etorrien eta mantenuaren gastuak estalita egongo dira.

Beraz, Batzarkide izan nahi baduzu, **zure izena eman 2022ko urriaren 17a (barne)**, bi bide hauetako bat erabiliz:

1) Batzarraren web orrian dagoen inprimakia bete esteka honetan:



[www.gipuzkoa.eus/eu/web/herritarrenbatzarra/zozketa-tokatu-zait](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/herritarrenbatzarra/zozketa-tokatu-zait)

2) Telefonoz izena eman ondorengo zenbakian: 943426920.

**Gogoan izan izen-ematea egiterakoan gutun honen goikaldean zehazten den KODEA eskatuko zaizula. Helbide bakoitzak bere kodea du.**

Edonola ere, erantsitako dokumentuan egitasmoaren inguruko informazio osagarria kontsulta dezakezu.

Jaso ezazu agur bero bat.

Eider Mendoza  
Gobernantza Diputatua